

## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure funtsezko jarduerak bi zatitan banatzen dira: aplikazioa martxan jarri aurretiko jarduerak eta martxan jarri ondorengoak.

Aplikazioa martxan jarri aurretik hainbat jarduera egin beharko ditugu. Hala nola, ona eta erabiltzeko erraza den aplikazio bat sortu eta diseinatu beharko dugu. Horretako informatikari bat kontratatuko dugu. Honez gain, Donostiako aparkalekuekin harremanetan jarri beharko dugu gure aplikazioaren inguruan ados jartzeko. Gainera, publizitatea egingo diegun enprekin harremanetan jartzea beharrezkoa izango zaigu, hauengandik lortuko baitugu diru gehien.

Aplikazioa martxan jarri ondoren, publizitatea egin beharko dugu gure aplikazioa ezagutzera eramateko. Behin aplikazioa martxan dagoela, gauza gutxi dago egiteko. Egin beharrekoa, sortzen diren akatsak zuzentzea da eta ahal den heinean aplikazioa hobetzea.

**Naroa Etxebeste**  
**Beñat Rios**  
**Asier Alkorta**  
**Martxel Parrondo**  
**Oihane Elizegi**

